



GHK-ko Administrazio Kontseiluak, gaur, 2013ko uztailaren 12an, hartutako erabakiaren berri emateko agerraldia, Zubietako errauste plantaren orubean.

GHKk Zubietako errauste plantaren lanen exekuzioa etetea erabaki du, Eusko Jaurlaritzak agindutako ingurumen arauak betetzen ez dituelako

Zubietako errauste plantaren lanen kontratuaren exekuzioa eten egin du Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa erakundeak (GHK). Horrela erabaki du GHK SAU-ko Administrazio Kontseiluak gaurko uztailaren 12ko batzarrean, eta hala jakin arazi dio Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioko Batzar Nagusiari, eta, baita Eusko Jaurlaritzari ere.

Lanen kontratuaren exekuzioa eteteko arrazoiak juridiko-teknikoak dira. Errauskailuaren egitasmoak, orain artean egin duen bidean, irregulartasunak eta lege urraketak izan ditu, eta horrenbestez ez du legea betetzen hainbat eremutan.

Lege urraketa nagusia hurrengoa da: Eusko Jaurlaritzak errauskailuaren proiektua gauzatu ahal izateko, Ingurumen Baimen Bateratuaren (IBB) bitartez, jarritako baldintzak ez dituela betetzen Obraren Lizitazio Dokumentuak. Obraren Lizitazioren Dokumentuak errauskailuari eskatzen dizkion baldintzak, eta Eusko Jaurlaritzak agindutakoak ez datoz bat. Funtsezko aldaketak behartu dira dokumentu batetik bestera. Ingurumen baldintzak aldatu egin dira. Eta, beraz, egitasmoak ez ditu ingurugiro arau eta aginduak betetzen. Hiru dira, nagusiki, Obraren Lizitazioren xedek urratzen dituen baldintzak:

1. Errauste plantan zaborra erre eta gero, geratzen diren hondakin kutsakorrak tratatzeko azpiegitura proiektutik kanpo uztea, IBBren aginduaren kontrara. Eta, beraz, hondakin solido kutsakor horien tratamendua ez du aintzat hartzen.



2. Errauste plantan zaborra erre eta gero, sortzen den errauts toxikoaren tratamendurako azpiegiturak ez eraikitzea, IBBren aginduaren kontrara. Eta, beraz, errauts kutsakorren tratamendua ez du aintzat hartzen.
3. Errauste plantaren kota edo lur maila IBBk baimendu baino hiru metro gorago jartzea. Aldaketa horrek sortzen dituen eragin berrien gaineko azterketarik ez egitea: bata, inpaktu bisualari dagokiona. Eta, bestea, goragoko kota horretan aineratuko den kutsadura ze mailatakoa eta zabalkunde izango duen ez ikertzea.

Baimendutako proiektuaren eta eraiki nahi denaren artean dauden diferentzia eta aldaketak hain dira funtsezkoak, egin nahi den egitasmoa ez dela baimendutako bera.

Irregularitasunen hauen ondorioz, errauste planta eraiki nahiko bazen ere, ezingo litzateke egin legea urratu gabe, legez kanpo jokatu gabe.

Beraz, Zubietako errauste plantaren lizitazio modua eta ingurumen baldintzei soilik erreparatuta, lanak ez dira legezko, eta horrenbestez GHK-k bertan behera utzi du lanen exekuzioa.